

### **Mondragon City Challengeko finala**

Joan den azaroaren 19an “Mondragon City Challenge” Ekintzailtza Kooperatiboaren Nazioarteko Txapelketako finala ospatu zen Arrasateko Amaia antzokian.

Xabi Perez Almandoz kazetari eta ekitaldietako aurkezlearen eskutik, Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak ongietorria eman eta proiektuan parte hartu zuten guztiak zoriondu zituen.

Ondoren, lehen edizio honetako ideiarik originalenaren lehen saria eman zitzaion M&M taldeari, Divercirco proiektuagatik: zirku sozial baterako proiektu bat proposatu dute, irabazi asmorik gabea, zirkuko arteak hezkuntzarako eta sozializatorako tresna gisa hartuta, gazte zaurgarriak integratzeko eta arrisku sozialeko egoera jakin batzuk hobetzeko. Saria 800 eurokoa izan zen.

Ekitaldiari jarraipena emanez, 6 talde finalistek beren enpresa proiektua defendatu zuten, hamar minutuz beren ideiak aurkeztuz, eta beste bost minutuz epaimahai profesionalak planteatutako galderei erantzunez. Epaimahaikideak erakunde hauetako ordezkariak izan ziren: Arrasateko Udala, CICOPA, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, MONDRAGON Korporazioa, Mondragon Unibertsitatea, Saiolan, Azaro Fundazioa eta El Pais eta El Periodico egunkariak.

Epaimahaiak eztabaidatu ondoren, hauek izan ziren sarituak:

16 eta 18 urte bitartekoen kategorian AG4 taldeak irabazi zuen Europarako bidaia bateko saria. Proiektua Tolosaldeko nekazarien eta bizilagunen arteko bitartekaritza egingo duen kooperatiba bat da, baserritarrei bermea eta babes eskainiko diena beren produktuak saltzeko, Tolosako bizilagunen eskura produktu natural osasungarriak jarriz, hondakinik sortu gabe eta 0km-koak aste osoan zehar, betiere garapen jasangarriko nekazaritza bultzatuz. Jesus Goienetxe izan da ASEcoop ordezkatzan duen tutorea, ALEko bazkidea ere badena.

19 eta 24 urte bitartekoen kategorian, LUP taldeak irabazi zuen, ikusmen urritua duten pertsonentzako sakelako lupa batekin, zeinak irakurketa lagundua eta adimen artifiziala dituen, eta saria Hego Korearako bidaia bat da. Taldearen tutorea Miguel Angel Irizar izan da, gure Elkartea ordezkatzuz.

Azpimarratzekoak dira Xabi Perez aurkezlearen hitzak, tutoretza lanaren arduradunentzat izandako laudorio eta esker oneko hitzengatik: “Gazteen zerbitzura jarri duten inplikazioaren, konpromisoaren eta esperientziaren balioa nabarmendu behar da, haiek baitira kooperatibismoaren etorkizuna. Eskerrik asko tutoretzaz arduratu diren ASEkoopeko eta Arizmendiarrietaren Lagunen Elkarteko jende honi”.

*Erakunde antolatzaileek lehen edizioaren gainean egin duten balorazioa oso ona izan da. Nazioarteko lehen lehiaketa honek Arrasaten du egoitza, helburua da gazteen artean ekintzailletza eta balio kooperatiboak sustatzea, eta 84 taldek parte hartu dute, guztira 16 eta 24 urte bitarteko 279 parte hartzaileekin, hainbat herrialdetakoak izanik: Espainia, Txile, Kolonia, AEB, Hego Korea, Mexiko eta Zimbabwe.*

*Hori guztia ezin izango zen egin talde antolatzailea, mentoreak, laguntzaileak, tutoreak eta epaimahai teknikoak eta profesionalak izan gabe, zeinak gazteen ondoan egon baitira Ekintzailletza Kooperatiboaren Nazioarteko lehen Txapelketaren edizio honetako etapa guztietan.*